

AKETEGI

EAEko MENDIRIK GARAIENA

ZEGAMAKO MAPA TOPONIMIKO BERRIAN AIZKORRIKO GOIBURUEN IZENAK BERRIKUSI DIRA

2015. urtean Zegamako Udalak Legazpiko Burdinola elkarte eta Luiaondon egoitza duen Dunba S.L. enpresa aukeratu zituen mapa toponimikoa berritzeko, Eusko Jaurlaritzak EAEko udalerrietako mapak egiteko urtero eman ohi duen diru-laguntzen baitan. Bi erakundeek elkarrekin lan egiteko egitasmoa aurkeztu zuten, lehenagotik izandako eskarmentu zabalean oinarrituta. Lana esleitu bezain azkar lanean hasi ginen, 2015eko abenduaren amaieran. Burdinolak bi zeregin nagusi hartu zituen bere gain: leku-izenak biltzea, normalizatzea eta kokatzea, batetik; eta mendian zehar barreiatutako kultur ondare historiko-etnografikoa (megalitoak, galzadak, meazuloak, karobiak eta abar) kokatzea, bestetik. Ez zen erronka makala itxurazko emaitzak atera nahi izanez gero. Izan ere, Zegamako Udalak ez zuen bertako toponimiaren azterketa sakonik egin, 1997. urtean argi-

TEXTO Y FOTOS



Jose Luis Ugarte Garrido.
(Legazpi, 1963).

Hizkuntza Normalkuntza teknikaria Eusko Jaurlaritzan. Toponimia, historia eta etnografia kontuetan zaletua.

taratutako mapa toponimikoa eredugarria bazen ere. Kultur ondare historiko-etnografikoa ere inbentariatu gabe zegoen, tamaina horretako udalerrietan (eta handiagoetan) ohikoa den bezala.

Lehenengo lana artxiboetako dokumentuak eta argitalpenetako testuak hustea izan zen, eta horretan hilabete batzuk pasa genituen. Horren ondotik etorri ziren mendi ibilaldiak eta herritarrekin egindako elkarrizketa ugariak. Aizkorri mendikatearen goialdea aztertzea azkeneko lana izan zen, hiru arrazoi nagusirengatik: bata, behekoa ondo aztertuta edukitzeak oinarri sendoa eskaintzen zuelako; bi, udaberri euritsuak ez zuelako lan horretara gonbidatu; eta hiru, artzainak topatzea errazagoa zelako.

Heldu genion horri ere. Ibilaldi ugariaren ondoren (Oazurtetik gora batzuetan, Itzubiagatik beste ba-



Aitxorrotx.



Koba.

tzuetan, Sandratitik sarritan, Arantzazutik inoiz) Aizkorriko txoko bakoitza bere nortasuna erakusten hasi zen: larre lekuak, haitz gaiztoak, katea lekuak, eguzkilore multzoak, saroi guneak, kobak, hosto zuriak... Erreferentziak behin ondo hartuta, artzainengana jo genuen eta, ustekabean, ordura arteko mapetan azaltzen ez ziren izenak jasotzen hasi ginen: “*Kanalaundie Pagobakarreti gora dagoen larre zabalari esaten zako, Oltze aldera*”; “*Aitxuri Aizkorriko kurutzati eskubira dagoen tontorra da, burnizko kurutza bat dago bertan, Aitxuri izena oain beste tontor bati esaten daoe baño oker*”...


Hala, konturatu ginen, Aizkorri mendateko goialdeko izen asko ez daudela behar bezala jasota Aizkorriko maparik ezagunenetan eta interneteko web-gune erabilienetan, eta artzainek eta baserritarrek erabiltzen dituzten izenetatik oso urrund daudela sarritan. Kontu hori toponimo txikiei ez ezik, handiei ere eragiten ziela konturatu ginen. Aldea hain nabarmena izanik, azterketa sakonagoa egitera derrigortu genuen geure burua, jasotakoa ziurtatu ahal izateko.

Azterketa horren emaitzak hemen aurkeztuko ditugu herritarrek eta, mendizaleek batez ere, ezagutu ditzaten, azken finean, ikus dezaten mendien eta parajeen izenak ez daudela tamalez behar bezain finkatuta, eta askotan erabiltzen den aldaeraren hautuan ez dagoela pisuzko arrazoirik. Garbi dago zein den on-dorioa eta hauxe da: gure mendien izenen azterketa sakonak egin behar direla, eta horiek egin artean ezin dela ezer egiazat edo benetakotzat jo. Askotan nahikoa izaten da haren magalean bizi diren artzain eta baserritarrei galdetzea, ikusteko zerbait arraroa, behinik behin, gertatzen dela.

AITXURI ez da Aizkorriko, eta EAeko bide batez, mendi tontorrik garaiena. Aitxuri ez delako postontzian AITXURI jartzen duen

mendi tontorra, beste bat delako, hain zuzen ere postontzian AITZABAL jartzen duen mendi tontorra. Hori hala dela baieztatzeke Zegamako goialdeak ondo ezagutzen dituzten artzainengana jo besterik ez dago. Aitxuri tontorrek burdinazko gurutze bat dauka bere tontorrean.

AITZABAL, berriz, ez da tontorrean amaitzen den mendi bat. Izenak ondo dioen bezala, zabalgunek bat da, Aketegi eta Aitxuri (benetakoa) bitartean dagoena. Artzainek Artxabal izenez ere





Aitxuri.

ezagutzen dute. Gaur egungo mapa gehienetan, hala ere, Aitzabal tontor bati egozten zaio, berez Aitxuri den tontorrari. Bistan denez, ez dago zuzen.

AKETEGI mendiak hainbat tontor dauzkala esan liteke. Bat, erpin geodesikoa duen tontorra (hain zuzen ere, haren aldemenean dagoen postontzian Aketegi izena adierazten da, zuzen). Beste bat, orain Aitxuri esaten zaion tontorra da. Artzainek tontor honi, berez, Aketegigoikoa esaten diote, haren azpian dagoen Aketegibekoa tontorretik bereizteko. Aketegigoikoa, gainera, Damaren kobatik oso gertu dago (100 bat metrora) eta, beraz, bat dator herriarren ahotan entzuten den Aketegiko Damaren kontakizuneko protagonistaren izenarekin. Esan beharra dago, badela beste koba bat Aketegiko puntu geodesikotik behera, Pyrenaicaren 177. aleko artikuluko batean Aketegiko damaren kobatzat jo dena, baina ia ziurtzat esan liteke hura ez dela kontakizunetako koba.

KANAL hitzari dagokionez, ikusi dugu Goierri garaiko artzainek mendi goietako paraje batzuk izendatzeko erabiltzen dutela. Aizkorri aldean, honakoak: *Lehenengo kanala* (Artzanburu inguruan), *Bigarren kanala* (hori ere Artzanburu inguruan), *Kanala* (Arbelaitz azpian, Zegama aldera), *Kanalaundi* (Arbelarretik Aizkorriko gurutzeara bitartean, Oltza parean), *Kanaltxiki* (Aitxuri inguruan). Itxura guztien arabera, "kanalak" harkaitz artean dauden

larre luzeak izendatzeko erabiltzen dira. Hala ere, Zegama aldeko isurian, Aizkorriko gurutzeara eta Aketegi bitartean dagoen sakon handiari mendizale askok Kanalaundi esaten diote, oker, haren izena Sakonaundi baita. Izenen gurutzaketak ez dira, baina, hor amaitzen. Izan ere, mendizale askok Sakonaundi beste sakon bati esaten diote, Aketegi eta Arbelaitz bitartean, Itzubiagarri begira, dagoenari. Sakon hura Nardasakon izenez ezagutzen dute herriarrek. Ikusten denez, nahaspila handi samarra da.

ANDRAITZ izenaren kokapen zuzena duela 13 urte iragarri zen, 2003. urtean Legazpiko mapa toponimikoa argitaratzearekin batera. Orduko azterketan ikusi zen Andraitz izena iturritik behera dagoen harkaitz handi bati zegokiola, eta ez tontorrari, haren izen zuzena Burnikurutz baita.

Erabilera okerra izan duten izen gehiago ere aipatu ditzakegu, baina goiko horietara mugatuko gara, ezagunenak eta erabiliak direlako. Uste dugu, gainera, lagin hori nahiko esanguratsua dela egoera zein den ikusi ahal izateko.

Burdinola elkartea ondarea zaindu, ezagutu eta ezagutarazteko jaio zen, eta Zegamako mapa toponimikoaren egitasmoa helburu horiekin lotzen da. Uste dugu baliagarria dela gure jakintza maila handitzeko, uste okerrak zuzentzeko eta gure ingurua hobeto ulertzeko.